| | |
|---|---|
| **2020KO EKAINAREN 17AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** | **ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 17 DE JUNIO DE 2020** |

Alvaro GONZALEZ PEREZ (PNV-EAJ)

| | |
|---|---|
| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |

AMIEVA CLEMENTE, Paula (ELKARREKIN PODEMOS)
ARREGI MARTINEZ, Joseba (PNV-EAJ)
ELORZA HORMAECHE, Fco. Javier (PP)
GALDUROZ ALVAREZ, Ainhoa (PNV-EAJ)
GONZALEZ DEL VALLE, Alicia (PP)
MASEDA SARATXO, Itxaso (EH BILDU)
OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA, Asunción (PSE-EE)
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon (EH BILDU)
SERGIO ATXOTEGI, Carlos (PNV-EAJ)
URIARTE GOROSTIAGA, Inazio (PNV-EAJ)

| | |
|---|---|
| BEHIN-BEHINEKO GERENTEA | GERENTE ACCIDENTAL |

ZABALA LASA, Gorka jn.

| AZTERGAIEN ZERRENDA | ORDEN DEL DIA |
|---|---|
| **46.**-2020ko maiatzaren 20ko ohiko bilera akta onartzea, hala badagokio. | **46.**- Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector ordinario del 20 de mayo de 2020. |
| **47.**-113/2020 Lehendakaritza-ebazpenaren kontu ematea; horren bidez, 69.760,00 €-ko kreditua egokitzea onartu da. | **47.**- Dación de cuenta de la resolución de Presidencia nº 113/2020, por la que se aprueba una habilitación de crédito de 69.760,00 €. |
| **48.**- 2020ko lehen hiruhileko obligazioak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzko txostena. | **48.**-Informe sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de oblicaciones del primer trimestre 2020. |
| **INFORMAZIO OROKORRA** | **INFORMACIÓN GENERAL** |
| **GALDE-ESKEAK** | **RUEGOS Y PREGUNTAS** |
| ▪ Euzko Alderdi Jeltzalearen idazkia, Getxoko Udalaren 7741 zenbakiko sarrera-erregistroarekin, Arantza Rica Alvarez andreak Getxo Kirolak-eko Kontseilu Errektoreko kide karguari uko egiteari buruzkoa. | ▪ Escrito del Partido Nacionalista Vasco con registro de entrada del Ayuntamiento de Getxo nº 7741, sobre renuncia de doña Arantza Rica Alvarez al cargo de miembro del Consejo Rector de Getxo Kirolak. |
| ▪ EH BILDUren galdera, Getxoko Udaleko 14191 zenbakiko sarrera-erregistroarekin. | ▪ Pregunta de EH BILDU con registro de entrada del Ayuntamiento de Getxo nº 14191. |

Getxon, 2020ko ekainaren 17an, 10:15ean, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Getxoko Udaletxeko Udalbatza Aretoan, goian aipatutako pertsonak batu direlarik (streaming bidez).

En Getxo, a las 10:15 horas del día 17 de junio de 2020 se reúne (vía streaming) en sesión ordinaria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Getxo, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

**46.- 2020KO MAIATZAREN 20KO OHIKO BILERA AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

**46.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 20 DE MAYO DE 2020**

Bertaratutakoek AHO BATEZ onartu dute 2020/05/20ko data duen akta.

Se aprueba por UNANIMIDAD de los presentes el acta de fecha 20/05/2020.



Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020

**47.-113/2020 LEHENDAKARITZA-EBAZPENAREN KONTU EMATEA; HORREN BIDEZ, 69.760,00 €-KO KREDITUA EGOKITZEA ONARTU DA.**

Lehendakariak 69.760,00 euroko kreditu-egokitzearen berri eman du. Aldez aurretiko hitzorduaren eta igerilekuan eta egun erabiltzen ari diren kanpoko instalazioetan edukiera kontrolatzeko sistema kontratatzeko izango da.

Aplikaziorako sarbidea ez dute erosi, aplikazioa bera baizik Getxo Kirolaketik birprogramatu ahal izateko, egin beharreko aldaketen arabera, ordutegi-tarteei, erabiltzeko guneei eta edukierei dagokienean; hots, araudia aldatzen doan heinean.

Gaur egun, aplikazio honekin hasi dira, eta arazoren bat egon da, baina agertzen doazen heinean zuzentzen joango dira.

Ibon Rodriguezek galdetu du gai hori argitaratu al den prentsan, eta Lehendakariak erantzun dio Getxo Kirolakek ez duela ezer aurkeztu prentsan; badaki aplikazioa garatu duten mutilek…

Ibon Rodriguezek esan du Getxoko ingeniari batek eta bi kidek garatu dutela, eta kontratatzeko zein prozedura erabili duten jakin nahi du. Getxo Kirolakek aplikazioa orain erostea erabaki du, ez dute ezagutzen, baina kostua ez da berriketakoa; 70.000 bat euroz ari dira, eta informazio gehiago nahi dute idatziz. Ez daki beste aplikazio merkeagorik bazegoen. Aplikazio bat erosi dute, baina zer-nolako zerbitzu gehiago eskaintzen ditu? Nork programatuko du? Nork egingo du aplikazioa erostearen ondorengo programazioa? Nola konponduko dira aplikazioak ekar ditzakeen arazoak edo akatsak? Zoritxarrez, informatikan, produktuak batzuetan zaharkituta geratzen dira, esan daiteke, eta arazoak eman ohi dituzte. Inbertsioa oso handia da, eta informazio gehiago nahi du. Ez da txantxetako inbertsioa, ez dute uste eta ez diote beharrezkoa ez denik, baina jakin nahi du zergatik aplikazio hau eta ez beste batzuk.

Are gehiago, garatu berria den aplikazioa erosi badute, eta beharbada beste udalerri batzuetan aplikatzen eta erabiltzen da edo ez, aurrean aipaturiko alderdi horiei guztiei buruzko informazio gehiago izatea nahi lukete.

Lehendakariak esan du aplikazio hori ezagutu zutela pasa den hilabetearen amaiera aldera, eta araudiak baimendutako larrialdi-prozedura bidez kontratatu dutela, aurrean dugun egoera dela-eta, eta, jakina, ekainaren 1ean aire libreko instalazioak irekiko zirelako; izan ere, besteak beste, udalerri honek ez du espazio libre gehiegi, baina kirola eta paseoak egiteko faseetan nolabaiteko muga bat zegoen. Hortaz, gure asmoa, eta aurreko kontseilu errektorean ere aipatu nuen, aire libreko instalazioak jarri eta ahalik eta azkarren irekitzea zen.

Egia da irekitzeko aldez aurretiko zita kudeatu eta edukierak kontrolatu beharra genuela, hori aplikazio honen xedea izanik.

**47.- DACIÓN DE CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA Nº 113/2020, POR LA QUE SE APRUEBA UNA HABILITACIÓN DE CRÉDITO DE 69.760,00 €.**

El Presidente da cuenta de la habilitación de crédito por importe de 69.760,00 euros, para la contratación del sistema de cita previa y control de aforos de la piscina y de instalaciones exteriores que se están utilizando a día de hoy.

Informa que no se ha comprado el acceso a la aplicación sino que se ha comprado la aplicación para poder reprogramarla desde Getxo Kirolak, en función de los cambios que se tengan que efectuar, en cuanto a franjas, espacios de uso y aforos, es decir, según vaya modificándose la normativa.

Actualmente, se ha comenzado con esta aplicación que va surgiendo algún problema pero se irá subsanando a medida que aparezcan.

Ante la pregunta de Ibon Rodriguez de si este tema es lo que se ha publicado en prensa, el Presidente participa que Getxo Kirolak no ha presentado nada en prensa, sabe que los chicos que han desarrollado la aplicación….

Ibon Rodriguez dice que los desarrolladores son un ingeniero de Getxo y dos miembros, y solicita conocer el procedimiento de contratación que se ha utilizado, que Getxo Kirolak ha decidido comprar ahora la aplicación, no la conocen, pero su coste no es baladi, están hablando de unos 70.000 euros y quieren más información por escrito, desconoce si había alguna aplicación más barata; se ha comprado una aplicación, pero ¿qué otros servicios se ofrece? ¿quién hará la programación? ¿quién hará la programación posterior a la compra de la aplicación? ¿cómo se van a resolver los problemas u errores que pueda traer la aplicación? desgraciadamente la informática es un sector donde los productos a veces se quedan obsoletos, se puede decir, y suelen dar problemas, la inversión es muy potente y quieren más información. No es una inversión baladi, no consideran y no dicen que no sea necesaria, pero quiere saber el por qué esta aplicación y no otras.

Es más si se ha comprado una aplicación recien desarrollada, que igual se aplica y se utiliza en otros municipios o no, les gustaría tener más información sobre todos estos aspectos comentados.

El Presidente participa que se tuvo conocimiento de esta aplicación a finales del mes pasado y se ha contratado por un procedimiento de emergencia que permite la normativa por la circunstancia en la que nos encontramos y porque evidentemente el día 1 de junio se abrían las instalaciones al aire libre, porque entre otras cosas, tampoco este municipio tiene un exceso de espacios libres sobre todo, se ha visto en las fases de actividad deportiva y paseos donde había cierta limitación; por lo que nuestra intención y lo comentó en el anterior consejo rector, era poner las instalaciones al aire libre y abrirlas lo antes posible.

Es cierto que la apertura nos obligaba a una gestión con cita previa y control de aforos, que era el objetivo de esta aplicación.



Getxo KIROLAK
Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020

Gainera, aplikazioaren azalpena eskuratzea eskatu da, Getxo Kirolakek aldatuko duelako, eta beharrezkoa dena aldatuko du Getxo Kirolaken Informatika Arloak. Azken hori arduratuko da edukierak, ordutegi-tarteak, igerilekuen erabilerak,… aldatzeaz, ez baitute nahi artatuko zaituen hirugarren enpresa bat egoterik. Une honetan, programarako sarbidea eta aldaketak zuzenean Getxo Kirolakek egitea behar dugu. APP-aren diseinuak bere zailtasuna duenez, garatu duen enpresari harekin bildutakoan eskatu zioten aldatzeko erraza izatea, batez ere, tarteei, ordutegiei, erabilerei eta edukierei erreparatuta.

Además, se ha solicitaco adquirir la explicación de la aplicación porque la modificará Getxo Kirolak y se cambiará lo que sea necesario desde el área de informática de Getxo Kirolak, la cual se encargará de hacer los cambios de aforos, franjas horarias, usos de la piscina, dado que no quieren ser esclavos de que exista ninguna tercera empresa que te atienda cuando ella pueda. En este momento se necesita que el acceso y esas modificaciones del programa las haga directamente Getxo Kirolak. Como el diseño de la APP tiene su complicación, lo que se solicitó cuando se reunieron con la empresa que lo ha desarrollado, es que pudiera tener un acceso fácil de modificar, sobre todo, los aspectos vinculados a franjas, horarios, usos y aforos.

Hala ere, Lehendakaritzaren ebazpen bat badago, eta, bertan, kontratazioa larrialdi-prozedura bidez esleitzen da, espedientean jasotako txosten juridiko eta guzti. Dokumentazio hori bertan daudenei bidaltzekotan geratu dira.

No obstante, existe una resolución de presidencia donde se adjudica la contratación por el procedimiento de emergencia con los correspondientes informes jurídicos que constan en el expediente, quedando en enviar dicha documentación a los presentes.

Paula Amievak adierazi du informazio bera eskatzeaz gain, ildo beretik doala, eta oraindik ere larrialdia eta abian jartzeko izandako denbora laburra ulertuta, denbora, edukiera, aldez aurretiko zitak bezalako gaiak betetzeko bete behar diren baldintza guztiak kontuan hartuta, apur bat arraroa iruditzen zaiola soilik aplikazio bat hautatzea, ekipo zehatz batekin, eta ziur aski jende asko egongo dela aplikazio eta beste era batzuetako espazio informatikoak gaitzeko abian jarri dena, lagundu ahal izateko, agian Administrazioei, baina, zalantzarik gabe, ekimen ugari sortu direla sortzen doan hau guztia errazteko.

Paula Amieva manifiesta que aparte de solicitar la misma información, va en la misma línea…, que aún entendiendo la emergencia y el poco tiempo que se ha tenido para ponerlo en marcha, sabiendo todos los requisitos que hay que cumplir por temas de tiempo, de aforos, de citas previas, le suena un poco raro que se decida solo una aplicación con un equipo concreto y seguramente habra mucha gente que se ha puesto en marcha para habilitar aplicaciones y otro tipo de espacios informáticos para poder ayudar, no sabe si a las Administraciones, pero desde luego han surgido muchisimas iniciativas para poder facilitar todo esto que va surgiendo.

Beraz, bat-batean aukera bakarra izatea kostu zehatz batekin,… Jakin nahi du beste espazio batzuetan, beste lekuetan edo beste autonomia erkidegoetan ikus ahal izan diren bestelako aplikazioekin konparaziorik egin den, prezioak alderatu diren, aplikazio bakoitzak eskatzen zuena alderatu den, edo zergatik eman zaion pertsona-talde horri, nahiz eta zalantzarik ez izan ondo egingo dutela eta Getxo Kirolakentzat praktikoa izango dela. Baina mundu osoak aukera berak izan behar ditu aurkezteko garaian eta Getxo Kirolakeri lagun diezaiokeen proiektu bat ere badutela esateko aukera izan.

Por lo tanto, que de repente únicamente exista una opción con un coste concreto, es por lo que le gustaría saber si hay alguna comparativa de otras aplicaciones que se hayan podido ver en otros espacios o en otros lugares o en otras comunidades autónomas, saber si se ha tenido en cuenta, saber si hay una comparativa de precios, de lo que ofrecía cada una de las aplicaciones o por qué se le ha dado a ese equipo de personas, que no duda que lo hagan bien y sea practico para Getxo Kirola, pero también hay que velar para que todo el mundo tenga las mismas oportunidades a la hora de presentarse y poder decir que también tienen un proyecto que pueda ayudar a Getxo Kirolak.

Lehendakariak argi azaldu du bilatzen ibilitakoan, proposamen hau aurkitu zutela, eta interesgarria iruditu zitzaiela denbora-eskasiarengatik. Egia da lehentasuna eman behar zaiola jendeak aurkezteko aukera izateari, baina helburu nagusia orain ez zen hori, instalazioak segurtasun-baldintzetan ireki ahal izatea baizik, ireki zitezkeenak, eta hori izan da Getxo Kirolaken helburua.

El Presidente es muy claro y expone que buscando encontraron esta propuesta que les pareció interesante dada la premura de tiempo, porque es cierto que hay que primar que la gente se pueda presentar pero el objetivo principal ahora no era ese, era poder abrir las instalaciones en condiciones de seguridad, aquellas que se podían abrir, y ese ha sido el objetivo de Getxo Kirolak.

Kontuan izan behar da aplikazio ezagutu zutenetik abian jarri arte, 6 egun igaro direla 1. fasera bitarte eta 24 ordu 2. fasera bitarte. Beraz, ez dago hori azkar egiteko aukera ematen duen kontratazio-prozedurarik. Jakin badaki ez dela merkea, baina proposatzen zioten beste aukera ere programa zitekeen kalkulu-orri bat besterik ez zela, eta hori xelebrea iruditzen zitzaion. Hori zen mahai gainean zuten beste proposamena; beraz, ez zegoen meditatzeko denbora askorik, edo programa daitekeen kalkulu-orri bat

Hay que tener en cuenta que desde que se ha descubierto la aplicación hasta que se ha puesto en marcha, han pasado 6 días hasta la 1º fase y 24 días hasta la 2ª, entonces, no existe ningún procedimiento de contratación que nos permita hacer eso de forma agil, es consciente que no es barata pero también es consciente que la otra alternativa que les proponian era una hoja de cálculo programable y esto le parecía “chusquero”. Esa era la otra propuesta que se tenía



Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020

edo garatutako eta Getxo Kirolakek baldintzatutako APP bat. Horrela, aplikazioarekin lan egitea erabaki zuten. Eta jakin badaki, aplikazioa ez dela munduko merkeena.

encima de la mesa, entonces tampoco había mucho tiempo para meditar, sí entre una hoja de cálculo programable o una APP desarrollada y condicionada por Getxo Kirolak, por lo que se decidió trabajar con la aplicación. Y es consciente que la aplicación no es la más barata del mundo.

Paula Amievak esan du ez dakiela "beste aukera xelebrea den ala ez", baina Getxoko Udaleko beste espazio batzuetarako, Punta Begoñako Galerietan, adibidez, gutxiago garatutako zerbait erabiltzen dela; hau da, "aurretiko hitzordua", eta edukierak kontrolatzeko erabiltzen dela, eta urte asko daramatzatela horrekin. Hortaz, horrek aurrera egiteko balioko al duela, baina, jarraitutako prozeduraz kanpo (larrialdia), konparaziorik egin den galdetzen du, aplikazioak bilatzerakoan bestelako aukerak kontuan hartu diren, beste kostu batzuk, beste ezaugarri batzuk, bilatzerakoan beste batzuk aintzat hartu dituzten edo bilatu eta soilik hau aurkitu duten eta prezio eta ekipo horrekin geratu diren.

Paula Amieva dice que no sabe sí es “chusquero o no la otra opción” pero sabe que para otros espacios del Ayuntamiento de Getxo, como las Galerias de Punta Begoña se utiliza algo que parece más rudimentario y que es “cita previa” y es para el control de aforos y lleva muchos años con ello, entonces, ójala esto sirva para avanzar pero a lo que se refiere, aparte del procedimiento que se ha seguido, que es el que ha sido por la urgencia, pregunta si se ha hecho una comparativa, si se ha tenido en cuenta dentro de esa busqueda de aplicaciones otras opciones, con otros costes, con otras características, si se han contemplado otras a la hora de buscar o si se ha buscado y solo se ha encontrado ésta y se han quedado con este precio y con este equipo.

Lehendakariak berriro esan du behar zuten teknologia bilatu dutela eta hori eskatutako epean eskainiko zuen inor ez dutela aurkitu. Punta Begoñan erabiltzen dutena kalkulu-orri bat da, telefonoa artatzeko pertsona bat egoten da, eta hori Getxo Kirolakek ezin du bere gain hartu, kontuan izanik estali gabeko igerilekura sartzeko edukieraren herena egunean 1.000 pertsonakoa dela; alegia, ez dago 1.000 pertsonari erreserba egiteko telefonoa hartzen egongo den langilerik; hori dela-eta, programa daitekeen kalkulu-orriaz edo telefonoz deituta kalkulu-orri bat erabiltzeaz aparteko teknologia batera jo behar izan dute. Metodo hori larrialdirik edo presarik ez dagoenean, eta, egia esan, edukiera-kontrol zorrotzik ere ez dagoenean erabiltzen da. Getxo Kirolaken, edukiera da kontrol-sisteman dagoen gauzarik garrantzitsuena.

El Presidente repite que se ha buscado la tecnología que se necesitaba y no se ha encontrado a nadie que ofreciera esto en el plazo requerido. Y matiza, lo que se utiliza en Punta Begoña es una hoja de cálculo con una persona al teléfono, que apunta, que es una cuestión que Getxo Kirolak no puede permitirse cuando se estima que el tercio del aforo de acceso a la piscina descubierta al dia son 1.000 personas, es decir, no se dispone del personal para estar cogiendo el telefono a quien reserva para 1.000 personas, por eso se ha tenido que ir a una teconología diferente al de una hoja de calculo programable o ni siquiera una hoja de cálculo donde llaman por telefono, ese es un método cuando no hay urgencia, ni prisa y en realidad, tampoco hay un control de aforo estricto; en Getxo Kirolak el aforo es lo mas importante que existe en el sistema de control, basicamente, es el aforo.

Paula Amievak galdetu du zer gertatuko den era horretako aplikazioak instalatu ahal izateko telefono mugikorrik ez duten pertsonekin.

Paula Amieva pregunta que va a ocurrir con aquellas personas que no disponen de un telefono móvil donde puedan instalarse este tipo de aplicaciones.

Lehendakariak erantzun dio pertsona horiei —jada iragarri da— telefonoz egingo zaiela arreta. Era berean, sartzeko hiru modu ezarri dira: bat web orrialdearen bitartez, bestea telefono bidez, eta hirugarrena Fadurara joan eta erakusmahaian bertan, jakina aplikaziorako sarbidea dago, izena eman eta kitto. Baina berriro gauza bera dio, 1.000 pertsona aurrez aurre edo telefono bidez artatzea ez da erraza.

El Presidente responde que para esas personas -ya se ha anunciado- se les atenderá por telefono. Tambien, se han puesto tres formas de acceso, una a través de la página web, otra a través del telefono y otra opción, es ir a Fadura y atienden en el mostrador, como es lógico hay acceso a la aplica ción, te apuntas y listo; pero vuelve a decir lo mismo, atender a 1.000 personas de forma presencial o por telefono no es sencillo.

**48.- 2020KO LEHEN HIRUHILEKO OBLIGAZIOAK ORDAINTZEKO LEGEZKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA.**

**48.- INFORME SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS LEGALES PARA EL PAGO DE OBLICACIONES DEL PRIMER TRIMESTRE 2020**

Gai honen inguruan galderarik ez dagoenez, hurrengo puntura igaro dira.

No existiendo ninguna cuestión sobre este tema, se pasa al siguiente punto.

**INFORMAZIO OROKORRA**

**INFORMACIÓN GENERAL**

<u>ESTALI GABEKO IGERILEKUEN IREKIERA</u>

<u>APERTURA PISCINAS DESCUBIERTAS</u>

Lehendakariak jakinarazi du estali gabeko igerilekuak

El Presidente informa que se abrirán las piscinas



Getxo KIROLAK
Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020

etzi, ekainak 19, irekiko dituztela, eta edukiera %30ekoa izango dela, %50era bitartekoa izan daitekeela jakinda ere. Lehen egunetan %30ekoa izango da, sorosleekin nola antolatu eta espazioak eta gainerakoak nola okupatu ikusteko. Gauza nola doan ikusita, gehiago irekitzen joango dira.

descubiertas pasado mañana, 19 de Junio y el aforo va a estar al 30%, aún sabiendo que puede ser hasta el 50%, pero en estos primeros días será al 30% para ver como es la organización con el tema de los socorristas y la ocupación de espacios y demás, y en función de como vaya se irá abriendo.

Bertaratuei gonbita egin die Fadurara ostiralean joateko, eraikitako, margotutako eta garatutako bideak, kontaktuak saihesteko modu independentean antolatutako sarrera eta irteerak, ikusteko, batik bat estalitako espazioetan, horiek kezkatzen baitute gehien, ahalik eta distantzia handienak egitearren.

Invita a los asistentes a visitar Fadura el viernes para ver los caminos que se han construido, pintado/desarrollado, acceso de entrada y salida de forma independiente para evitar los contactos, sobre todo en los espacios cubiertos que son los que más preocupan, de manera que se produzcan las mayores distancias posibles.

Aldagelak erabili ahal izango dira, baina dutxarik gabe. Egongo diren dutxak kanpoko igerilekuetara joateko pasilloetan dauden ohikoak dira. Igerilekuarekin, egia esan, nahiko neurri hartu dituzte, kezkatzen zituen gaia izateagatik.

Que van a estar disponibles los vestuarios pero sin ducha, y las duchas que van a estar disponibles son las habituales que se encuentran en los pasillos de acceso a las piscinas exteriores y es verdad que se han tomado bastantes medidas con el tema de la piscina, ya que era un tema que les preocupaba.

Fadurako kanpoko zona nahiko ondo ari da funtzionatzen, entrenatzen dutenez gain, ez baitago korri egitera joan nahi duen hainbeste jende. Tenis eta padel pistak erreserbatzeko kontua ere ondo funtzionatzen ari da, eta, horri dagokionez, gustura daude.

Que está funcionando bastante bien la zona exterior de Fadura, puesto que tampoco hay tanta gente que quiera ir a correr, aparte de los que entrenan. También el tema de las reservas de tenis y padel está funcionando bien y por esa parte están satisfechos.

Berriro dio %30eko edukierarekin hasiko direla, eta antolatzeko gaitasuna duten heinean, edukierak handitzen joango dira.

Vuelve a decir que se va a empezar con un aforo del 30% y a medida que se tenga la capacidad de organizar se irán incrementando los aforos.

Itxaso Masedak galdetu du ordu mugaturik badagoen, jendeak gehienez 2 orduz, 3 orduz egoteko aukerarik baduen, eta Lehendakariak baietz erantzun dio. Haren ustez, hori ez da prentsa-oharrean argitaratu, denborarik ez izateagatik ezin izan zuen berrikusi eta. Jakina, gehienez 2 orduko egonaldia jarri dute jolaserako jardueretarako; hau da, seme-alabekin denbora pasatzera joaten zarenerako, eta gehienez ordu 1ekoa igeri egitera doan jendearentzat.

Itxaso Maseda pregunta si hay unas horas limitadas, si la gente puede estar un máximo de 2 horas, 3 horas, respondiendo el presidente que sí. Que cree que en la nota de prensa no se ha publicado, debido a que por falta de tiempo no pudo revisarla y que efectivamente, se ha puesto un máximo de 2 horas de estancia para actividades recreativas, es decir, cuando vas con tus hijos/as a pasar el rato allí y 1 hora máximo para la gente que va a nadar.

Ordutegi-tarteak ezarri dira adin-taldeen eta premien arabera. 7:30etik 10:30era erabili ahal izango dute 65 urtetik gorakoek eta mugikortasun-arazoak dituztenek. Jakin badakite alarma-egoera prozesu osoan 10:00etatik 12:00etara bitarteko ordutegi-tartea izan dela 3. adinekoentzat, baina Getxo Kirolaken esperientzia kontuan hartuta, badakite adinekoak goiz etortzen direla igeri egitera. Sarreren zerrendak badaude, batzuek pertsonalki ezagutzen dituzte, eta igeri egitera lehen orduan joatea gustatzen zaie; ondorioz, 7:30etik 10:30era bitarteko tartea jarri da. 10:30etik 7:30era, berriz, igeri egitera joan daiteke jendea edota igerilekuan jolasean ibiltzera, eta azken ordutegi-tarte bat badago soilik igeri egitera joan nahi duen jendearentzat.

Se han establecido franjas horarias por grupos de edad y de necesidad. Se ha establecido una franja de 7:30 a 10:30 horas para que la gente mayor de 65 años y gente con problemas de movilidad; que saben que la franja que se ha estado utilizando en todo el proceso del estado de alarma ha sido de 10:00 a 12:00 para la 3ª Edad pero por experiencia en Getxo Kirolak las personas mayores vienen a nadar pronto. Se dispone de los listados de los accesos, a algunos se les conoce personalmente y les gusta ir a nadar a primera hora, por eso se ha establecido la franja horaria de 7:30 a 10:30 y existe otra franja horaria de 10:30 a 7:30 que seria para la gente que quiere ir a nadar y a la piscina recreativa y una última franja para la gente que quiere ir exclusivamente a nadar.

Oro har, horrela antolatu da dena, baina berriro dio, aldaketaren bat egin daitekeela, eta, horregatik, era horretako aplikazioa hartu dutela, ordu-tarteak eta edukierak aldatu ahal izateko.

Esto es un poco en líneas generales, pero vuelve a repetir, que caso se deba realizar alguna modificación por eso se dispone de ese tipo de aplicación que permite volver a cambiar las franjas y cambiar los aforos.

Hasiera batean, kale bakoitzean lau pertsona baimentzea aurreikusi zen. Kontuan izan behar da luzeran 50 metroko eta zabaleran 2 metroko kaleak direla; horrek segurtasuna bermatzen uzten du, eta osasun-zerbitzu guztiek esan dute uretan ez dela birusa transmititzen. Horrela, aurrean

En principio, se tiene previsto el uso de cuatro personas por calle; hay que tener en cuenta que las medidas de las calles son de 50 mts. de largo y 2 mts. de ancho, lo que permite garantizar la seguridad y que en el agua todos los servicios sanitarios han dicho que



Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020

Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/07/15 Fecha: 15/07/2020

aipaturikoa, gehiago zabaltzeko aukera ematen zaigula ikusten badugu, edukierak zabalduko dira.

el virus no se transmite, y lo dicho anteriormente, si vemos que se nos permite ampliar se volverán a ampliar los aforos.

Fco. Javier Elorzak galdetu du igerilekurako pertsona bakoitzeko ordutegi-tarteak daudela ulertu duela; beraz, nola egingo dute 2 do 3 orduz egon behar duten pertsonak 3 ordu igarotakoak alde egiteko? Lehendakariak erantzun dio sorosleek ikus dezaketela zer-nolako erreserba egin duten, eta, edukiera %30ekoa bada ere, sorosleen zerbitzua %100ekoa dela. Ez dira jendearen atzetik ibiliko, baina norbait lau orduz han dagoela ikusten badute, erreserba erakusteko eskatuko diote, eta paperean edo mugikorraren bidez erakutsi ahal izango dute.

Fco. Javier Elorza comenta que ha entendido que hay unas franjas horarias por personas para la piscina, entonces, realmente ¿cómo se va a hacer que unas personas que tienen que estar 2 o 3 horas, al cabo de 3 horas se vayan?, respondiendo el Presidente que los socorristas tienen acceso a la reserva que han efectuado y de hecho el servicio de socorrismo aunque el aforo es al 30% está al 100%. No van a estar persiguiendo a nadie pero cuando vean a alguien que lleva cuatro horas le preguntarán por su reserva que la podrán mostrar en papel o a través del móvil.

## GALDE-ESKEAK

▪ <u>Eusko Alderdi Jeltzalearen idatzia, Getxoko Udalean 7741 sarrera-erregistroa duena, Arantza Rica Alvarez andreak Getxo Kirolakeko Kontseilu Errektoreko kide karguari uko egiteari buruzkoa</u>

Lehendakariak jakinarazi du Eusko Alderdi Jeltzalearen idatzi bat dagoela, Arantza Ricak Getxo Kirolakeko Kontseilu Errektoreko kide karguari uko egiteari buruzkoa, hauteskunde-zerrendetara doalako.

▪ <u>EH BILDUren galdera, Getxoko Udalean 14191 sarrera-erregistroa duena</u>

Lehendakariak EH Bilduri esan dio galdera irakurtzeko, eta Ibon Rodriguezek esan dio ez duela kabinan, baina aurrean adierazitakoarekin lotuta dagoela; hots, kiroldegiak berriz irekitzearekin. Ez dutela informazio asko jaso, eta ulertzekoa dela irekitzeko baldintzak aldatzen doazelako egunak igarotzen ari diren heinean. EUDELek, ordea, zenbait neurri ezarri ditu, eta esan zuten igerilekuak itxita egongo zirela irailaren 15era bitarte, eta soilik kanpokoa irekiko zela eta ez barrukoak.

